

Antoine de Saint-Exupéry

# Printze Txikia



Javier Alcázar Colillaren egokitzapena

Joaquín Porcarren ilustrazioak



## Material didaktikoak LAGUNTZAILEAREN DOSSIERRA

Lehenengo argitalpena: 2019ko otsaila

Materialen idazleak: M. Àngels Sellés Pons eta Mercè Sendrós Farré  
Diseinua eta maketazioa: Adapta Editorial

Adapta Editorial  
Cuba kalea, 18, solairuartea  
08030 Bartzelona  
[www.adaptaeditorial.com](http://www.adaptaeditorial.com)

© Adapta Editorial (Zigilua Ferro Publicaciones Editoriales S.L.-rena da), 2019

## GIDA DIDAKTIKOAREN ARRAZOIA

Gida honek baliabide erabilgarri eta funtzionala izatea du helburu. Asko gustatuko litzai-guke irakurketa lagunaren zereginean laguntzeko balio izatea. Irakurle trebeak hezitzea ez da jarduera erraza, baina bai dela lan aberasgarria eta suspergarria, askotan irakurmenaren beraren mugak gainditzea ez ezik, hedadura sozial oso garrantzitsua ere hartzen duena. Irakurketa orokortzen laguntzea pribilegio bat da, irakurketa lagunaren zereginean, modu batera edo bestera, partaide garenontzat bakarrik eskuragarri dagoena.

Irakurketa prozesu osoan zehar, laguntzaileak (maisua-maistra, irakasle, pedagogo, psikologo, hezitzaile, liburuzain...) rol oso garrantzitsua du piztu, dinamizatu eta sozializatzeko. Azken finean, funtsezko pertsona da irakurtzeko benetako gogoia sustatzeko eta ikasle ezberdinak irakurketaren munduan sartzeko jarduerak bultzatzen dituen eragilea baita.

Profesional honen zeregina gidari bat izatearena da, irakurlea lagundu eta trebatzen duelako, biderik eraginkorrena erakusten baitio trebea izateko eta irakurketaren bitarteko ulermen ona lor dezan. Horregatik garrantzitsua da profesional honek baliabide nahikoak izatea lan aberasgarri honi aurre egiteko, haren ikasleengan irakurtzeko ohitura bizkortu dezan eta ikasleek irakurriz goza dezatela lor dezan eta irakurketa gozamen, ikasketa eta elkarreragin sozial iturri izan dadila.

Aurkezten dizuegun gida honek tresna praktikoa izatea du helburu, irakurketaren zeharkako ikuspegia duena eta arlo didaktiko, metodologiko, ludiko eta balioena barne hartzen dituena. Enfasia hizkuntzaren ezaugarri formaletan egiten du eta gainera funtzionamendu kognitibo eta emozionala eragiten du.

## GIDA DIDAKTIKOAREN EGITURA

Adapta argialetxeak argitaratutako Antoine de Saint-Exupéryren *PRINTZE TXIKIA* liburuaren gida didaktikoa ikaslearentzako eta irakurketa laguntzailearentzako dossierrez osatzen da. Jarduera dibertsifikatuak ditu eta egitura hau jarraitzen duen diseinua du:

1. Saio libreak, tutoretzakoak eta ahozkotasuna lantzeko, elkarbizitza eta alderdi emozionalen inguruko hausnarketan eta ikuspuntuen trukaketaren bidez, izaera kritikoa sustatzeko liburuak transmitituko dizkigun balioen edukiei aurre hartzeko helburuarekin.
2. Irakurketaren ulermena sustatzeko jardueren antolaketa irakurketa prozesuaren hiru ataletan zehar:
  - **Irakurri baino lehen:** Irakurri baino lehen, interesgarria da ikasleak irakurriko den irakurgaiei buruz motibatzea. Besteak beste, liburuaren azalak nabarmentzea eta begiratzea, eta irudiak begiratzea –ilustrazio eta argazkiak- baliabide ezin hobeak dira liburuaren gaiari buruzko hipotesi eta inferentziak egiteko.
  - **Irakurtzen den bitartean:** Hurrengo multzoetan antolatutako jarduerak dituen gida didaktikoa proposatzen dugu:
    - Planteamendua
    - Korapiloa
    - Amaiera
  - **Irakurri ondoren:** Irakurtzen amaitu ondoren, liburuaren amaieran dauden *Hausnartu ezazu* atalean aurki daitezkeen laburpen jarduerak egitea proposatzen dugu.

## JARDUERA MOTAK

Proposatzen ditugun jarduerak honela taldekatzen dira:

**Irakurmenekoak (I):** irakurketaren bitarteko ulermenaren estrategiak erabiltzen: hipotesia edo iragarpenak, inferentziak, ondorioak, irudikatzea, testuaren ideia nagusiak, laburpenak, laburbildu...

**Ahozkoak (A):** hausnarketa, eztabaida, debateak, elkarreragiteak eta iritziak...

**Hiztegia (H):** hiztegiaren ezagutza, sinonimoak...

**Informazioaren bilaketa (IB):** informazioa zabaldu baliabide ezberdinak erabiliz.

**Lanketa (L):** produktu mota ezberdinak sortu (idazmena, testuak, horma-irudiak, mapak, marrazkiak, komikiak, etab.).

**Ebaluaziokoak (E):** irakurketa jarraitzeko eta gramatikako ezaguerarako galderak.

**Zabaltzeko jarduerak (ZJ):** hautazko jarduerak dira, profesional bakoitzak aukera eta programa ditzakeenak jarraitzen duen irakurketa helburuen arabera. Jarduera hauen helburua irakurketaren jarduerari zeharkako lanketa ematea da eta ikasketa alor ezberdinetara lotzea da, ikasleek bereganatu behar dituzten Oinarrizko Gaitasunak erreferentzia bezala edukita.

Liburu honen gaiak, nolabait esateko ikuspegi *filosofiko* batetik eztabaidarako eta zabaltzeko gaiak errazten ditu. Idazlana esaldi eta irakaspenez betea dago. Bizitzari buruzko idazlan filosofikoa dela esan daiteke, heldu zein haur eta nerabeentzat.



**IRAKURKETA LAGUNTZAILEARENTZAKO GIDA**

## AURKEZPENA

Irakurtzeko gozamina bultzatzeko helburuarekin, irakurketa etengabe ez etetea gomen-  
datzen dugu. Horregatik, jardueren proposamena “argumentuaren atal”etan taldekatu  
ditugu: **Sarrera**, **Planteamendua**, **Korapiloa** eta **Amaiera** mugatuz. Sail bakoitzean atal  
bakoitzerako jardueren proposamen orokorra dago.

| ARGUMENTUAREN ATALAK | ORRIALDEAK | KAPITULUAK   |
|----------------------|------------|--|
| <b>SARRERA</b>       | 7-9        | Antoine de Saint-Exupéryri buruz<br>Printze Txikiari buruz |
| <b>PLANTEAMENDUA</b> | 13-49      | 1. kapitulutik 9. kapitulura                               |
| <b>KORAPILOA</b>     | 50-97      | 10. kapitulutik 23. kapitulura                             |
| <b>AMAIERA</b>       | 99-115     | 24. kapitulutik 27. kapitulura                             |



## IRAKURTZEN DEN BITARTEAN EGITEKO JARDUERAK

### ARGUMENTUAREN ATALA: SARRERA

(7. orrialdetik 9. orrialdera) “Antoine de Saint-Exupéryri buruz”, “*Printze Txikiari buruz*”

**S1. (I, H)** Ikasleek 7. orrialdetik 9. orrialdera irakurri ondoren, idazlearen eta idazlanaren deskribapena dagoen orrialdeetan, erantzun zuzena azpimarratzea eskatuko zaie.

a) Antoine de Saint-Exupéry frantsesa zen, eta hemen jaio zen:

Paris

Marseilla

**Lyon**

b) *Printze Txikiaren* idazleak hurrengo lanbideak izan zituen:

Sendagilea eta Pilotua

Pilotua eta Marrazkilaria

**Idazlea eta Pilotua**

c) Antoine de Saint-Exupéryk hainbat erreportaje idatzi zituen hauei buruz:

**Vietnam eta Errusia**

Moda eta Etxea

Kirolak eta Politika

d) Non idatzi zen *Printze Txikia*?

Frantzian, 1946. urtean

**Estatu Batuetan, 1942. urtean**

Espanian, 1943. urtean

**S2. (L, I, IB, A)** Ikasleei Antoine de Saint-Exupéryri buruz informazioa bilatzeko eskatuko zaie. Argazkiak, idazkiak edo esaldi ospetsuak jaso ditzakete horma-irudi bat diseinatzeko eta ikasgelan zintzilikatzeko. Eredu honek gida moduan balio du.

**Izen osoa:** Antoine de Saint-Exupéry, haren aitak bizkonde titulua zuen, beraz aristokrata zen.

**Jaiotze data eta tokia:** Lyon (Frantzia), 1900. urteko ekainaren 29an.

**Hiltze data eta tokia:** 1944ko uztailaren 31ean, haren hegazkina desagertu egin zen Bigarren Mundu Gerran misio batean parte hartzen zuenean. Haren hegazkinaren hondakinak ez ziren 2000. urtera arte aurkitu, Genovatik (Italia) gertu.

**Lanbidea:** pilotua, idazlea, kazetaria. Argentinan Hego Ameriketako Posta Sarean ere lan egin zuen.

**Bere lanik ezagunena idatzi zuen urtea:** *Printze Txikia (Le Petit Prince)*, 1943.

**Idazleak idatzitako beste liburuak:** “ipuin” literatura generoaren idazletzat hartzen da.

- *Pilotua (L'aviateur)*, 1926
- *Hegoaldeko Posta (Courrier du Sud)*, 1928
- *Gaueko hegaldia (Vol de Nuit)*, 1931
- *Gizonen lurraldea (Terre des Hommes)*, 1939
- *Gerrako pilotua (Pilote de Guerre)*, 1942
- *Bahitu bati eskutitza (Letter to a Hostage)*, 1944
- *Printze Txikia (Le Petit Prince)*, 1943
- *Gotorlekua (Citadelle)*, 1948
- *Lettres de jeunesse*, 1953
- *Carnets*, 1953
- *Lettres à sa mère*, 1955
- *Écrits de guerre*, 1982
- *Manon, danseuse*, 2007
- *Lettres à l'inconnue*, 2008

## ARGUMENTUAREN ATALA: PLANTEAMENDUA

**P1. (I, H)** Ikasleek 1. kapitulutik 9. kapitulura, 13. orrialdetik 50. orrialdera, irakurri ondoren, hizki zopan irakurketarekin lotuta dauden lau hitz aurkitzeko eskatuko zaie: LORE, PLANETA, BASAMORTU, HEGAZKIN.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| H | O | S | K | U | I | L | O | R | E | F |
| A | E | U | L | P | L | A | N | E | T | A |
| C | T | G | U | V | L | M | U | N | Y | N |
| I | D | B | A | S | A | M | O | R | T | U |
| S | U | C | B | Z | V | O | M | O | E | A |
| A | X | V | K | L | K | L | N | G | U | N |
| D | A | T | I | E | S | I | P | Ñ | M | U |
| F | I | R | P | Z | X | G | N | O | D | B |

**P2. (H, IB)** 20. orrialdean, Printze Txikiak dio: «Hori ez da arkumea, ahari bat da».

Hiztegiaren laguntzarekin, ikasleei arkume eta ahari hitzen esanahia idazteko eskatuko zaie.

**AHARI:** Ardiaren arra, adar biribilkatuak dituena. Bere gorputza artile lodi eta malguaz beteta dago, normalean zuri edo beltza. Etxekotutako animalia da eta bere artilea eta haragia erabiltzen dira, batez ere.

**ARKUME:** Ardiaren umea, bereziki amaren esnea hartzen duena. Gainera, pertsona bat ona eta apala dela esateko erabili ohi da.

Ondoren, bi animaliak marraztu ditzakete haien diferentziekin.

**P3. (I, E)** Ikasleei eskatu X batekin adierazteko zuzenak diren baieztapenak.

- **X** Elefante bat jan zuen boa sugearen marrazkia ez zitzaion inori gustatzen.
- Antoine de Saint Exupéryk bere hegazkina konpondu behar izan zuen basamortuan eta han lagundu zion haur bat aurkitu zuen.
- Printze Txikiak ahari baten marrazkia nahi zuen.
- Printze Txikia haur bat zen, oso txikia zen planeta batean bizi zena: "Asteroide B-613".
- **X** Printze Txikiak asko zaintzen zuen bere planeta.
- **X** Printze Txikiak amodio handi bat utzi zuen bere planetan.
- **X** Printze Txikiak bere planeta utzi zuenean hegan egin zuen.

**P4. (I, H, L)** 27. orrialdearen irakurketan zehar, heldu askok pertsonak haien itxura fisikoa-gatik epaitzen dituztela ulertzen da. Hausnarketa hau ikasleei azalduko zaie eta eskatuko zaie hausnarketa hau argi geratzen den testuaren zatia idaztea.

Astronomoak bere aurkikuntza aurkeztu zuen nazioarteko bilera batean.  
Baino inork ez zuen seriotasunez hartu bere janzteko eragatik.  
Pertsona nagusiak horrelakoak dira.  
Urte batzuk geroago,  
berriro aurkeztu zuen beste bilera batean.  
Aldi horretan traje oso dotore bat zeraman.  
Eta mundu guztiak onartu zuen bere aurkikuntza.

## ARGUMENTUAREN ATALA: KORAPILOA

**K1. (I, H, L)** Ikasleek 10. kapitulutik 23. kapitulura, 51. orrialdetik 97. orrialdera irakurri ondoren, esaldi bat idazteko eskatuko zaie. Esaldi honek bisitatzen dituen bost lehenengo planeten pertsonaiak nolakoak diren definitu behar du.

| Printze txikia eta haren bisitak<br>(Adibideak) |                        |   |
|---|------------------------|---|
| Planeta   | Pertsonaiak            | Haren izaera definitzen duen esaldia  |
| Lehenengoa                                      | Erregea (autoritarioa) | — Zu nire mendekoa zara!<br>— Esertzeko agintzen dizut!<br>— Debekatzen dizut!<br>...   |
| Bigarrena                                       | Harroputza             | — Harroputzek soilik gauza politak esaten dituztenei entzuten diete.<br>— Mirestea esan nahi du zuk dakizula planeta osoan ni naizela gizonik ederrena, hoberen jantziena, aberatsena eta azkarrena.<br>... |
| Hirugarrena                                     | Mozkorra               | — Lotsa sentitzen dudala ahaztu nahi dut.<br>— Edateaz lotsa!<br>...  |
| Laugarrena                                      | Enpresaria             | — Oso gizon serioa naiz ni!<br>Ez zait gustatzen txorakeriekin distraitzea...<br>...  |
| Bostgarrena                                     | Farolaria              | — Pentsatzen zuen farolaria ezagutu zituen guztietatik zentzuzkoena zela, ez zelako bere buruaz kezkatzen, beste gauza batez baizik.<br>...   |

Erantzuna librea dela kontuan hartzen dugu, hemen adierazi direnak orientatzeko dira. Ontzat hartuko dira pertsonaiaren ageriko ezaugarriak islatzen dituztenak.

**K2. (L, A)** 78. orrialdeko marrazkia begiratu ondoren, ikasleek ilustrazio eder honek adiztera ematen duenaren deskribapena egin behar dute. Azalduko da ilustrazioaren xehetasunak oso adierazgarriak direla bakoitzaren emozio eta sentipenak deskribatzeko.

(Erantzun libretzat hartzen dugu, beti ere marrazkiaren ageriko ezaugarriak azaltzen badira.)

**K3. (A, I, H, E)** Ikasleei istorioko pertsonaiak gehien definitzen dituzten balio bakoitzarekin erlazionatzeko eskatuko zaie. Erantzunak eta hauen interpretazioak arrazoitzea garrantzitsua da.

| Balioak        | Erregea | Harroputza | Mozkorra | Pilotua | Lorea | Farolaria | Geografoa | Azeria |
|----------------|---------|------------|----------|---------|-------|-----------|-----------|--------|
| Mirespena      | X       |            |          |         |       |           |           |        |
| Laguntasuna    |         |            |          | X       |       |           |           | X      |
| Maitasuna      |         |            |          |         | X     |           |           |        |
| Iraunkortasuna |         |            |          |         |       | X         |           |        |
| Errespetua     | X       |            |          |         |       |           | X         |        |
| Jakinduria     |         |            |          |         |       |           | X         |        |
| Ausardia       |         |            |          | X       |       |           |           |        |
| Lotsa          |         |            | X        |         |       |           |           |        |

(Erantzun hauek orientagarriak dira)

**K4. (A, L)** Ikasleei eskatu eta motibatzen zaie antzezpen erraz bat prestatzera. Printze Txikiak planeta ezberdinetan aurkitzen joan den pertsonaietatik, gehien harritu dituen aukeratzeko eskatuko zaie. Printze Txikia eta aukeratutako pertsonaiaren arteko benetako edo asmatutako elkarrizketak idazteko esango zaie. Hauek buruz ikastera animatuko ditugu gero eszenan antzezteko. Haien irakurketa taldeko kideen aurrean antzezpena aurkezteko izenburua jartzea gomendatuko zaie.

Izenburu bat jartzera ausartzen al zara?

Izenburua

**K5. (I, E)** Ikasleei eskatzen zaie, irakurri ondoren, egiazkoak diren baieztapenak E batez adierazteko, eta gezurrezkoak direnak G batez.

- E** Printze Txikiaren planeta oso txikia zen.
- G** Ez zegoen zuhaitzik, belar txarrak bakarrik.
- E** Bere planetan ilunabarrak oso ederrak ziren, egun batean 40 ikusten ziren.
- E** Lore oso ederra zegoen, oso ondo usaintzen zuena, baina bere burua babesteko zurtoinean arantzak zituen.
- G** Hiru sumendi txiki zeuden, piztuta zeudenak.
- E** Haizea egiten zuen eta gauetz airea oso freskoa zen.
- G** Ez zegoen animaliarik.

## ARGUMENTUAREN ATALA: AMAIERA

**A1. (I, L)** Ikasleek 24. kapitulutik 27. kapitulura, 99. orrialdetik 115. orrialdera, irakurri ondoren, hurrengo esaldiak antolatzeko eta testua zentzu eta segida kronologikoarekin idazteko, narrazioan islatzen den bezala, eskatuko zaie.

|  |   |
|--|---|
| Printze Txikiak tratu bat egin zuen sugearekin.  | 4 |
| Pilotuak hegazkina konpondu zuen eta etxera itzuli zen.<br>Denak pozik zeuden baina pilotua ez.  | 6 |
| Pilotu batek hegazkinean matxura bat izan zuen eta basamortuan lurreratu behar izan zuen. Han, haur bat agertu zen.  | 1 |
| Pilotua hain triste zegoen sei urte pasa zirela Printze Txikiaren historia kontatzeko. Kontatu zuenean, denoi asko gustatu zitzaigun oso polita delako.                      | 7 |
| Printze Txikiaren politena ez zen ikusten zena, bere barnean zegoena baizik. Haren ederrena begietara ikusezina zen.   | 3 |
| Printze Txikiak eta pilotuak zortzi egun pasa zituzten elkarrekin, marrazkiak egin zituzten, istorioak kontatu eta zeruan zeuden izarrak begiratzen zituzten.                | 2 |
| Ilundu zuenean, Printze Txikia oinez hasi zen. Urte baten ondoren, bere planetara itzuli behar zuen, baina bere gorputzak gehiegi pisatzen zuen eta lurrean utzi behar zuen. | 5 |

### Orain, idatzi kontaera ondo antolatuta

Pilotu batek hegazkinean matxura bat izan zuen eta basamortuan lurreratu behar izan zuen. Han, haur bat agertu zen.

Printze Txikiak eta pilotuak zortzi egun pasa zituzten elkarrekin, marrazkiak egin zituzten, istorioak kontatu eta zeruan zeuden izarrak begiratzen zituzten.

Printze Txikiaren politena ez zen ikusten zena, bere barnean zegoena baizik. Haren ederrena begietara ikusezina zen.

Printze Txikiak tratu bat egin zuen sugearekin.

Ilundu zuenean, Printze Txikia oinez hasi zen. Urte baten ondoren, bere planetara itzuli behar zuen, baina bere gorputzak gehiegi pisatzen zuen eta lurrean utzi behar zuen.

Pilotuak hegazkina konpondu zuen eta etxera itzuli zen.  
Denak pozik zeuden baina pilotua ez.

Pilotua hain triste zegoen sei urte pasa zirela Printze Txikiaren historia kontatzeko. Kontatu zuenean, denoi asko gustatu zitzaigun oso polita delako.



**A2. (I, L, H)** Ikasleei esaldi hauek irakurtzeko eta gehien hunkitu dituenak azpimarratzeko eskatuko zaie. Garrantzitsua da nabarmentzea *Printze Txikian* bizitzako ikaspen garrantzi-tsuak dituzten esaldi asko daudela, gure portaerei buruz hausnartzera lagundu dezakete-nak. Hauek aukeratu dira, narrazioan agertzen diren beste hainbaten artean:

- «**Funtsezkoena ikusezina da begietara.**»
- «**Zure arrosa besteak baino garrantzitsuago da hartan erabili duzun denboragatik.** »
- «**Adibidez, zu arratsaldeko lauretan etortzen bazara, hiruetatik aurrera zoriontsu izaten hasiko naiz.**»
- «**Etxekotu duzunaren arduraduna zara betirako.** »
- «**Bakoitzari eskatu behar zaio bakoitzak eman dezakeena bakarrik.**»

Ondoren ikasleari eskatuko zaio esaldia idatzi dezala azpimarratuta

«.....  
.....»

Ikasleari esango zaio aukeratutako esaldiak daukan mezua azaltzeko, bere ikuspuntutik.

Erantzun librea, beti ere arrazoitua eta koherentea bada.

Orientazio modura, esaldi bakoitzaren hainbat bizitzako ikaspen posibleetatik bat azaltzen dugu hemen.

**«Funtsezkoena ikusezina da begietara.»**

Esaldi hau azeriak esaten dio Printze Txikiari. Esan nahi du gauzen benetako balioa begiei ihes egiten diela, baina ez bihotzari. Hausnarketa bat da, batzuetan, ikusteko gai ez garen gauzei buruz, begirada hutsalarekin begiratzen ditugulako. Agerikoa ez da beti garrantzitsuena. Hau liburuan etengabe ateratzen da, itxura baino haratago ikustera gonbidatzen gaituena.

**«Zure arrosa besteak baino garrantzitsuago da hartan erabili duzun denboragatik.»**

Esaldi hau azeriak esaten dio Printze Txikiari. Esan nahi du erlazio eta maitasunak denborarekin hazten direla, eta ematen diogun denbora guzti horrek egiten dituela guretzako baliotsuak. Maite ditugun gauzei denbora emateari buruzko garrantziaz hausnartzen du eta gure amodiozko edo laguntasunezko erlazioetan iraunkor izateko ardurari buruz.

**«Adibidez, zu arratsaldeko lauretan etortzen bazara, hiruetatik aurrera zoriontsu izaten hasiko naiz.»**

Esaldi hau azeriak esaten dio Printze Txikiari. Laguntasunak sortarazten duen zoriontasuna adierazten du eta maitasun hori nola erakusten den maite dugun norbait ikusteko sentitzen dugun premiazko beharrean. Maite ditugun pertsonak gugandik espero dutena betetzearen garrantziaz eta haien aurrean hartzen dugun arduraz ere hitz egiten du.

**«Etxekotu duzunaren arduraduna zara betirako.»**

Esaldi hau azeriak esaten dio Printze Txikiari. Esan nahi du, amodiozko edo laguntasunezko erlazio bat beste pertsona batekin landu denean, erlazio horren aurrerapen elkarren arduradunak bihurtzen gaituela. Gogorarazten digu, beste pertsona batekin erlazio bat “etxekotu dugunean”, bata bestearentzat oso garrantzitsu bihurtu garela, eta ezin dugula elkar bertan behera utzi.

**«Bakoitzari eskatu behar zaio bakoitzak eman dezakeena bakarrik.»**

Esaldi hau erregeak esaten dio Printze Txikiari. Erregeak ezin zuen bete ezin zitekeen zerbait agindu. Esaten zuen agindutakoa bete izateko, besteak egitera prest daudena bakarrik agindu behar dela. Esaldi honek boterean ona izatearen garrantziaz hitz egiten du.

**A3. (A)** Ikasleei adiskidetasunari buruz eztabaida bat egitea proposatuko zaie, azeria eta Printze Txikiaren arteko elkarrizketetatik abiatuz. Eztabaida 4/5 pertsonako taldeetan antolatuko da, eta eztabaidarako gaia honen inguruan izango da: adiskidetasun loturak sortzen jakitea, loturak bilatzeko modua, bata bestea edukitzeko modua, etab. Oso interesgarria da kideen artean urrun dauden ikuspuntuak amankomunean ezartzea eta haiei buruz hausnartzea, taldeko ikuspuntuak ikaskide guztiekin partekatzeke.

**A4. (A, ZI)** Liburua irakurtzeaz amaitu ondoren, ikasleei iradokizuna egin gauean zerua behatzera familia eta lagunekin joateko. Izarrak distiratsuen bilatzeko eta honek zein sentipen transmititzen dien pentsatzeko esan. Interesgarria da ikasgelan eduki dituzten sentipenak azaltzea eta nabarmenduko da denek ez dutela berdina ikusten izarrak behatzerakoan.

Zer ikusi dute?

Zer pentsatu dute?

Zer sentitu dute?

**A5. (L, I, E)** Ikasleei irakurketa modu azkar eta errazean ebaluatzeko eskatuko zaie:

*(Erantzun librea)*

Ikasleei liburuak merezi duen nota, 1etik 10era, jartzeko eskatuko zaie.

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|

Nori gomendatuko zeniokeen pentsatu eta zergatik esan ezazu:

*(Erantzun librea)*

**Zabaltzeko Jarduerak (ZJ):** jarduera hauek aukerakoak dira, eta argi dago irakurleen adinaren eta motibazioaren arabera egingo direla. Batzuei buruzko informazioa ematen dugu, gazte eta helduentzat:

**El Principito (2015) filma ikustea,** Mark Osbornek zuzendua. Antoine de Saint-Exupéry frantsesak idatzitako *Printze Txikia* kontakizun klasikoaren egokitzea 3D animazioan. Irena Brignullek gidoia idatzi zuen eleberrian oinarrituta. Liburuaren lehenengo animaziozko bertsioa da. Filmean ipuinerako animazioa koadroka erabiltzen du, eta narrazio osagarrirako ordenagailuzko animazioa. Bertsio honetan, jatorrizko istorioa metakontakizun modura azaltzen da: neska gazte bat bere amarekin etxe berri batera joaten da. Nahiz eta neskatoa heldua den bere adinerako, bere amak oporretarako prestatu duen ikasketarako programa zorrotzegia da. Neskatoak bizilagun berri, bitxi eta bikaina eza gutzen duenean, gehienentzat ezkutukoa den mundu berri, magiko eta koloretsua eza gutuko du: Printze Txikiaren unibertsoa. Neskatoak horrela haurtzaroko ontasunetara itzultzeko bidaia bat hasiko du.

**El Principito (1974) filma ikustea,** Stanley Donen zinegile estatubatuarrak zuzendu eta ekoiztua. Angloestatubatuar drama musikal filma da. Alan Jay Lernerren gidoi eta abestien hitzak ditu eta Frederick Loeweren musika du. 40ko hamarkadan girotua dago.

**El Petit Princep (katalanez) (2016) musikala,** Àngel Llàcer eta Manu Guixena. Youtuben ikusteko aukera.

**Aurkezpen motibatzailea:** *21 lecciones para el siglo XXI*, Yuval Noah Harari.

**Hitzaldia:** *El Principito, 21 lecciones para ser feliz en un mundo de adultos*, Ramón Candel.



